

Interpretaritzia bertsolaritzan

Izaskun ELLAKURIAGA

Kongresu edo batzar handietan legez, bertsolaritzan ere erabili izan da aldibereko interpretazio zerbitzua. Iazko kontua da, Araba eta Bizkaiko Bertsolarien Txapelketa Nagusian esperimentatu zen. .>>>>>>>>>>>



Mezua da interpretariaren kezka nagusia; hau da edukia, beraz ez forma.

Interpretariak, nolabait esateko, garia eta lastoa bereizi egin behar izango ditu.

Has gaitezen, funtsezko argibide bat emanez. Ez zen itzulpen zerbitzua izan, interpretaritza zerbitzua baizik. Zer dela eta argibide hau? Gauza ezberdinak direlako eta eskaintzen zen zerbitzua zein izan zen ulertzera-koan nahasteak sor ditzakeelako. Itzulpengintza normalean, denborarekin testutik testura egiten den bitartean, interpretaritzarako hiru modu nagusi daudela esan dezakegu eta hitzetik hitzera egin ohi da. Lehen moduan, pertsona batek bizpahiru minutuz berba egin eta notaketa bat egin ostean, hartzaileari itzulpena eginda pasatzen zaio. Bigarrenengan, pertsona hitz egiten, interpretaria ari dela hartzaileari belarrira besteak zer dioen itzultzen ari zaio. Eta azkenik, medio teknikoak bitarteko zenbait batzarretan egin ohi den interpretaritza teknikoak.

Araba eta Bizkaiko Bertsolarien Txapelketa Nagusian, Zamudioko Parke Teknologikoak eskaintzen zituen bitarteko teknikoak aprobetxatuz, bertsolaritzan zerbitzu honek zer emaitza eman zitzakeen esperimentatzea erabaki zuten antolatzaileek. Egiteko horren arduradunak Koldo Tapia eta Begoña Montorio izan ziren. Lehenago ere, interpretaritza lanetan ibilitakoak dira biak.

Koldo Tapia eta Begoña Montorioren egitekoa bera zen, bertsoak interpretatzea hain zuzen. Txandaka egiten zuten beren lana. Ofizioko jardunetan, berriz, bakoitzak pertsonaia baten interpretazioa egiten zuen.

Mezua da interpretariaren kezka nagusia; hau da edukia, beraz ez forma. Pertsona batek diskurtso literario oso aberatsa egin dezake, baina interpretariari ezinezko zaio horren birsorketa egitea. Interpretariak,

nolabait esateko, garia eta lastoa bereizi egin behar izango ditu.

Bertsolaritzaren kasuan, beraz, zailtasuna hasieratik planteatzen da. Bertsolaritza eta diskurtso arrunt baten artean alde formal handiak dira. Beraz zelan gainditu zailtasun hoiek?

Koldo Tapiak adierazi digunez, "bertsolaritzak dituen baliabideak ironia sartzeko, zeharkako esaldiari konnotazioa sartzeko eta beste hainbat modu kontutan hartuta, beste hizkuntza batera emateko orduan, prestakuntza ikaragarria eskatzen dizu, eta esango nuke, batzutan ezinezko ere gerta daitekeela. Batez ere, ironiazko kasu batzuetan, harapatzea bera ere kostatzen denean, horren ordezkotako parekoa beste hizkuntza batean emateak sorkuntza lan ikaragarria eskatzen dizu eta hori lan zaila da".

Bertsolaritzak duen adjetibazio handia eta landuak ere, zailtasuna gaineratzen dio interpretearen egitekoari. Baina beharbada, zailtasunik handiena, bertso batean egon daitekeen mezuaren egituraren dagoela aitortu



"Euskaldun batek, bertsoa euskaraz entzun behar du eta interpretaritzako kontuak beste batzuentzat utzi. Ezin dira gauzak deskontestualizatu."

"Jende asko dago
bertsolaritza zer
den ez dakiena eta
niri zoragarria
iruditzen zait.
Jende hori
harrapatzeko modu
bat izan daiteke, eta
beharbada gero
euskera ikasteko
gogoia piztuko
zaie".

digu Koldo Tapiak. "Bertsolariak bere estruktura saltoka darama. Jungaiguilak ez dizkigu ematen, hori hartzaileak egin behar izaten du, eta interpretatzen ari denari zailtasun gehigarriak gehitzen dizkio. Tarteka zerbait erraza egingo zaizu lotura sintaktiko horiek gabeko mezu bat egituratzea, eta beste batzuetan, ezinezko eta horrek sekulako parafrasiak egitera eramango zaitu"

"Anekdotak hutsa izan zen"

Bertsolaritzan lehen aldiz Zamudion erabili zen interpretaritza zerbitzua. Horrek oihartzun handia izan zuen hedabideetan eta kurioso asko erakarri zuen Tapiaren ustez.

"Nobedadea zen eta kurioso asko hurbildu zen. Hori lanean ari denarentzako ez da batere ona izaten. Egia esan, hedabide eta bazter guztietan izan zuen oihartzunak asko harritu ninduen. Niretzat anekdota hutsa izan zen", erantzun digu esperientzia baloratzeko eskatu diogunean. Dena den, besterik ere izan du argitzeko. "Euskaldun batek, bertsoa euskaraz entzun behar du eta interpretaritzako kontuak beste batzuentzat utzi. Ezin dira gauzak deskontestualizatu. Bertsozale euskaldun batek, "bertsoak asko galdu duela" esan dezake. Baina balorazio hori egiterakoan oso kontuz ibili behar da. Interpretaritzaren neurriak eta baldintzak ezagutzea eskatzen du, bestela komentarioa hutsala baita".

Esperientzia zer nolakoa izan zen jakin guran, Zamudioko saioan interpretaritza zerbitzua erabili zuen Mari Karmen Ruiz algortarrarekin berba egin dugu. Mari Karmenek duela bost urte ezagutu zuen bertolaritza. Freddie Paia bere semearen bitartez murgildu zen bertsoen trenean. Eta harrezkero, ez du semeak kantatzen duen bertso saiorik galtzen. Eta orain Xabier eta Itsaso seme-alaben bertsorako zaletasunak ere poztu du.

Zamudio erabilitako interpretaritzaz zerbitzua esperientzia interesgarria iruditu zitzaion. "Bertso saio askotan izan naiz, semeari entzuten eta nahiko galduta ibiltzen naiz. Pixkat ulertzen dut eta gauza batzuk harrapatzen ditut, baina zail egiten zait guztia ulertzea. Hain da berezia bertso bat...!", azaldu digu Mari Karmen Ruizek.

Bertsolaritza sustatzeko modu bat izan daitekeela aitortzen du berak. "Jente asko dago bertsolaritza zer den ez dakiena eta niri zoragarria iruditzen zait. Jende hori harrapatzeko modu bat izan daiteke, eta beharbada gero euskera ikasteko gogoia piztuko zaie".

Berarekin batera, beste hiru erdaldunek jarraitu zuten saioa interpretaritz zerbitzutik, tartean Bilboko Sinfonikako bibolinista errumaniar batek. "Guztiak ados ginen. Esperientzia oso ona izan zen. Ederra da bertso bat ulertu ahal izatea. Baina horretan oso lan garrantzitsua da itzultzailearena. Bertsolaritza ulertu behar duela iruditzen zait, han esaten direnak jaso ahal izateko", esanez baloratu zuen Mari Kamenek interpretaritz zerbitzua.

Mari Karmen Ruizi gehiagotan egitea gustatu litzaioke, bertsolaritza esparru euskaldunetik kanpora hedatzeko balio dezakeelako. Koldo Tapiak, ordea, anekdota hutsean geratu zela uste du. Zuek zer uste duzue? Imajinatzen al duzue bertso saiorik interpretazio zerbitzu eta guzti?•